# MATXISMOARI PLANTO

## ESKORIATZAN JAIETAN INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA



## AURKIBIDEA


**1. ZER DA INDARKERIA MATXISTA?** .......... 2

**1.1 ERASO MATXISTAK** .......... 2

**1.2 SEXU ERASOAK** .......... 3

**2. ERASO MATXISTA BATEN AURREAN ERANTZUTEKO PROZEDURA** .......... 4

**2.1 LEHENENGO ARRETA BIKTIMARI** .......... 4

**3. ERANTZUN PUBLIKOA** .......... 9

**3.1 ERANTZUN PUBLIKOAREN EZAUGARRIAK JAI TESTUINGURUAN** .......... 9

**4. BALIABIDEEN ZERRENDA** .......... 11

**SATEVI** Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua .......... 11

## 1. ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Indarkeria matxistaren adierak hainbat modutan ager daitezke gure egunerokotasunean; lagunen artean; senideekin; lanean; aisialdian... Indarkeria mota honek emakumeen eta gizonen arteko **botere-harremanak** sortzen ditu, emakumeei egiturazko desberdintasun bat inposatuz. Egoera, eraso eta jarrera matxistak batez ere emakumeek jaso arren,  sexu-genero sistemarekin bat ez datozenek ere jasatzen dituzte. Hau da, sistema bitarrean ezarritako arau sozialen barruan sartzen ez den pertsona ororen kontra ere zuzentzen da.

Indarkeria matxista terminoak beste termino batzuk barnebiltzen ditu, hala nola, indarkeria **sexista** (emakumeak emakume izategatik sufritzen duen indarkeria), **homofobia, lesbofobia eta transfobia**. Azken horiek LGTBIQ+ kolektiboak pairatzen ditu.

### 1.1 ERASO MATXISTAK

Indarkeria matxista mota hauek, biktimaren duintasunaren eta askatasunaren aurkako jokabide gisa ulertzen ditugu.



## 1.2 SEXU ERASOAK

Beste pertsona baten sexu askatasunaren aurka baimenik gabe egindako edozein ekintza dira. Testuinguru horretan, sexu erasotzat hartuko dira erasotzaileak, **bere boterea erabiliz** edota biktimaren **zaurgarritasun egoera** aprobetxatuz, egiten dituen ekintzak.

Adostasuna dagoela soilik ulertuko da pertsona batek bere borondatea argi eta garbi adierazten duten ekintzen bitartez libreki hala adierazi duenean

Sexu erasotzat ere hartzen da "mendekotasun kimikoa" deritzona. Era berean, sexu erasotzat hartuko da ere borondatea deuseztatzen duten substantziak, alkohola edo psikofarmakoak borondatez hartu arren bere buruaren jabe ez dela aprobetxatuz baimenik gabeko sexu-praktikak egitea.

SINTOMAK: hitz egiteko zailtasuna, logura, goragaleak edo oka egitea, buru nahasmena, zorabioak edo bertigoa izatea edo desinhibizioa

Biktima alkoholarekin edo drogekin "pasatu" dela pentsatzen baduzu ere, eta garrantzirik eman ez, kontuan izan bere egoera fisikoak eta emozionalak okerrera egin dezakeela. Adi egon!



## 2. ERASO MATXISTA BATEN AURREAN ERANTZUTEKO PROZEDURA

Eraso matxistei aurre egiteko protokolo hau onartzen dutenek, konpromisoa hartzen dute Eskoriatzan honako prozedura jarraitzeko:




### 2.1 LEHENENGO ARRETA BIKTIMARI

Erasoren bat ikusten badugu edo laguntza eskatzera etortzen badira, momentu horretan egiten ari garena utziko dugu pertsona horri laguntzeko.

**BIKTIMA BATI LAGUNTZA ESKAINI BAINO LEHEN, GOGORATU!**

| ✓ | ✗ |
|---|---|
| **Enpatia** erakutsi biktimarekin, berak ez dauka errurik! | **Ez epaitu**, ez kendu garrantzirik gertatutakoari, ez **jarri zalantzan** biktima, ez galdetu horrelakorik: seguru zaude?, ez zaude esajeratzen, agian? |
| **Pazientzia** izan, eta errespetatu bere erritmoa bizitakoa kontatzeko | Erasotzailearekin: **ez defendatu** edo justifikatu<br>Agian, erasotzailea ezagutzen duzu eta ez duzu gai ikusten horrelako erasorik egiteko.<br>Kontuan izan nahiz eta zure laguna izan erasotu dezakeela |
| Biktimari laguntzeko bere **konfiantzazko norbait** bilatu, berak hala nahi izanez gero | Biktimarekin: **ez presionatu** horrelako esaldiekin: salatu behar duzu! nor izan da? |
| **Galde iezaiozu** beti beste pausu bat eman baino lehen, biktima ados dagoen jakiteko | Biktimarekin: **ez utzi bakarrik**, ezta erabakirik hartu ere biktimarekin adostu barik! |

| | |
|---|---|
| **1. Ez izan testigu pasiboa** | ✓ Ahal den heinean, **lehentasuna** izango da biktima laguntzea, bere ongizate emozionala eta fisikoa erdigunean jarriz.<br>✓ Biktima **leku seguruan** gera dadila lehenetsiko dugu; halako lekurik ez balego, saiatuko gara leku lasaiago batera joaten.<br>✓ Biktimaren **intimitatea** eta nortasuna hasiera-hasieratik babestuko ditugu. |
| **2.Entzun eta babesa erakutsi** | ✓ **Ez utzi** biktima **bakarrik**, berak eskatu ez badu. Bakarrik egon nahi badu, galde iezaiozu ea bere **konfiantzazko** norbaiti deitzerik nahi duen.<br>✓ Galde iezaiozu zer behar duen, eta errespetatu bere **erabakia**.<br>✓ Biktimari entzuteko prest egon behar gara, bizitakoa kontatzeko behar duen denbora errespetatuz.<br>✓ Ez dugu bere kontakizuna **zalantzan** jarriko; lasai entzungo diogu, eta behar diren azalpenak emateko tartea utziko diogu.<br>✓ Erabakiak hartzeko, bere iritzia eta **erritmoa errespetatuko** ditugu.<br>✓ Biktimak erasoa lasaiago kontatzeko denbora behar badu, edo informazioa buruan ordenatzeko denbora behar badu, beste une batean hitz egiteko edo **hurrengo egunean itzultzeko aukera** emango diogu, nola lagundu diezaiokegun lasaiago pentsatzeko.<br>✓ Biktimari erabakiak hartzea kostatzen bazaio, bere **konfiantzazko pertsona** bati laguntza eskaini/eskatu diezaiokegu, betiere erasoa jasan duen pertsonaren ongizatea erdigunean jarriz. |
| **3.Sexu-erasoen aurrean** | **ZURE LAGUNTZA NAHI BADU**<br>✓ Ez utzi bakarrik. Bere konfiantzazko norbaitekin kontaktatu biktimari laguntzeko. Hobe emakume bat bada.<br>✓ Galdetu ea laguntza **medikurik**, arreta **psikologikorik** edo **salaketa** jartzerik nahi duen. |

| | |
|---|---|
| | ✓ **Informatu** laguntza medikua edo soziala eskatzeko edota salaketa jartzeko eskubidea daukala.<br>✓ **Ospitalera joan** nahi badu, ospitaletik epaitegira deitzeko aukera dago auzitegi-medikua bertaratzeko eta biktimaren **lagin biologikoak** jasotzeko.<br>✓ Epaitegira deitzeak **parte ematea** dakar, eta horrek prozesu judizial bat hastea dakarrela jakinarazi behar zaio.<br>✓ **Prozesu judizial** bat hasi beharko duela kontuan izan beharko du, horren ondorioz deklarazioa egin eta epaiketa azkar batera joan beharko du hurrengo egunean.<br>✓ Legearen arabera, biktimak lagin biologikoak har dakizkion eta horiek ospitalean gordetzeko **eskubidea** du, salatu nahi izan edo ez.<br>✓ Biktimak ahoa garbitu badu, dutxa hartu, zerbait jan, arropa aldatu edo botatzen baditu probak ezabatu ditzake. Horrez gain, probatzat hartu daitezkeen bideoak, audioak, irudiak edo Whatsap mezuak baditu, hobe ezabatzen ez baditu, salaketa egiteko baliagarriak izan daitezkeelako.<br>✓ Hala ere, garbitu edo aldatu bada, **ez bota errurik!**<br>✓ Dokumentu honen azken atalean biktimarekin konpartitu ditzakezun **baliabideen telefonoak** daude.<br>✓ Aldendu behar bazara, ziurtatu ez duzula biktima bakarrik uzten eta **ez** dagoela **arriskuan**.<br><br>**ZURE LAGUNTZARIK EZ BADU NAHI**<br><br>✓ Saiatu **gertuko norbait** aurkitzen, biktima bakarrik gera ez dadin. Hobe emakume bat bada.<br>✓ Edozein kasutan, norbaitengana jo baino lehen, **galdetu** beti biktimari.<br>✓ Berak nahi izanez gero, bere gertukoei edo hurbildu denari **baliabideen informazioaren** berri eman.<br>✓ Aldentzen zarenean, ziurtatu **beti lagunduta** uzten duzula.<br><br>**ERABAKIRIK HARTZEKO MODUAN EZ BADAGO** |

| | |
|---|---|
| | ✓ **Ez utzi bakarrik**. Ahal bada, hobe emakume bati abisatzen badiozu.<br>✓ **Deitu** 112ra.<br>✓ Itxaroten duzuen bitartean, **leku lasai bat** bilatu. |
| **4.Informatu** | ✓ **Ziurtatu** behar duen informazio jasotzen duela biktimak.<br>✓ **Ez epaitu** biktimaren **erabakia** -salatzea edo ez salatzea-**.**<br>✓ Biktima ados badago, **erantzun publikoa** aktibatuko dugu.<br>✓ Erasotzailea espazio berean badago eta biktimak horrela behar/nahi badu, erasoaren berri emango diegu lekuaren **arduradunei**. |
| **5.Erasotzailea rekin** | ✓ Erasoa taberna batean gertatzen bada, biktima leku seguru batera eraman ondoren, eta, **betiere, bere onarpenarekin,** tabernako arduradunak **ALARMA** piztuko du eta musika eten, tabernan daudenei eraso bat gertatu dela jakinarazteko.<br>✓ Biktimak nahi badu, eta erasotzailea espazio berean badago, erasotzaileari **bertatik joateko** eskatuko diogu.<br>✓ Erasotzailearekin edo bere alde egiten dutenekin **ez dugu konplizitaterik** izango, ezta tentsioa arintzeko ere. |

## 3. ERANTZUN PUBLIKOA

Indarkeria matxistaren aurkako borrokan, Eskoriatzan erasoei publikoki erantzuteko konpromisoa hartzen dute dokumentu hau onartzen dutenek. Indarkeria matxistaren kontrako erabateko gaitzespen kultura bat sortzeko ezinbestekoa da erasoen aurkako erantzun publikoa ematea. Hori dela eta, Eskoriatzan, jai egunetan, eraso matxistaren bat gertatzen bada, eta biktimak nahi badu, erantzun publikoa aktibatuko daiteke. Erantzun hau kasu hauetan aktibatuko da:

1. Biktimak nahi badu.
2. Biktima erantzuteko gai ez bada, senideek edo bere konfiantzazko pertsonek erabakiko dute, betiere biktimaren ongizate emozionala erdigunean jarriz.

### 3.1 ERANTZUN PUBLIKOAREN EZAUGARRIAK JAI TESTUINGURUAN

Jai testuinguruan eraso bat gertatzen denean azkar erantzuteko premia sortzen da. Hori, batzuetan, ez dator bat biktimak behar duen denborarekin. Hortaz, biktimarekin hitz egin gabe, bere iritzia kontuan izan gabe, erantzun publikoa aktibatu daiteke eta biktima bera kaltetu. Hori gertatu ez dadin, ezinbestekoa izango da biktimaren erritmoa errespetatzea erantzun publikoa ematerakoan.

Biktimaren **onarpena** izan behar dugu erantzun publikoa aktibatzeko
Erantzun publikoak ezin du inoiz biktima kaltetu eta erreparazio neurri bat izan behar du

Erantzun publikoa aktibatzeko hainbat modu jaso dira dokumentu honetan. Ideia horiek erabiliko dituzte eragile sozialek erantzun publikoa aktibatzeko.

Erantzuna egokitzeko erasoak herrian sortu duen **zirrara** baloratuko da. Modu berean, erantzuna aktibatzeko biktimaren edota bere gertukoen beharrak kontuan hartu beharko dira. Beraz, erantzun horrek, biktimei laguntzeko eta indarkeria matxista baztertzeko neurri bezala balio izateaz gain, herritarrak **sentsibilizatzeko** eta etorkizuneko erasoak **prebenitzeko** balioko du.

Erantzuna aktibatzeko planteatu daitezkeen ekintzak:

- Erasoa gaitzesteko adierazpena.
- Hurrengo egunean ekitaldiak/kontzertuak etetea tarte jakin batean.
- Kontzertuak etetea eta eszenatokitik erasoa gaitzestea.
- Jarduerak etetea txosnetan, tabernetan edo beste leku batzuetan.
- Jai guneetan ekintzak egitea erasoa gaitzesteko.
- Elkarteratzea egitea plazan.
- Ekintzak/jaiak bertan behera uztea.
- Esku-orriak eta pegatinak banatzea eta baliabideei buruzko kartelak jartzea hainbat eremutan (txosnak, tabernak, eskapeak, plazak…).
- Berdintasunarekin lotutako leloak zabaltzea.

Erasoak, bere berezitasunengatik (eraso masiboa, bortxaketa, hilketa, eraso oso biolentoa, etab.), herrian eragin handia badu, beste neurri batzuk ere hartu ahal izango dira epe ertain eta luzerako, baliabide publikoekin eta kasuan kasuko udaleko baliabideetara bideratuz.

Testuinguru horretan martxan jarri daitezkeen ekintzak hauek dira:

- ✓ Terapia saioak biktimaren senide edo gertuko pertsonentzat.
- ✓ Adingabeekin erasoaren ondorioak lantzeko saioak egitea hezkuntza formal eta ez formaleko eragileekin (irakasleak, gaztelekuko dinamizatzaileak, hezitzaileak…).
- ✓ Biktimari babesa emateko ekitaldiak egitea.
- ✓ Muralak margotzea herritarrekin.

## 4. BALIABIDEEN ZERRENDA

Zerrenda hau biktima edota bere konfiantzazko pertsonekin partekatuko dugu.

**SATEVI** Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua

- Telefonoa 900 840 111
- 24 orduko zerbitzua, 365 egunetan.

Zer eskaintzen du zerbitzuak?

- Entzun eta erantzun egingo dizute, nor zaren galdetu gabe.
- Deia doakoa da eta ez da fakturan agertuko, mugikorrean bai.
- Entzun edo hitz egin ezin duten pertsonei lagun diezaiekete.
- 51 hizkuntzatan hitz egin dezakete.
- Edozein indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzen dituzte, baita inguruko pertsonak, familiakoak eta profesionalak ere.

**BLZ -SAV Biktimari laguntzeko zerbitzua**

Telefonoa: 900100928

- Ordutegia: astelehenetik ostiralera arte, 8:30etik 15:00ak arte, eta astearte eta asteazkenetan 16:30etik 19:00ak arte.
- Uztaila eta abuztuan: 8:00etatik 15:00ak arte.

Zer eskaintzen du zerbitzuak?

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua legelarien, gizarte-langileen eta psikologoen diziplina anitzeko taldeek osatzen dute. Biktimei aholkularitza integrala eskaintzen diete.

**Larrialdiak** 112

**Udaltzaingoa** 943 71 45 32

**Arrasateko Ertzaintza** 943 53 47 20

**Eskoriatzako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak** 943 71 31 36

**“Guerreras” Emakume bizirauleen taldea:** guerreras.altodeba@hotmail.com



# MATXISMOARI PLANTO

## ESKORIATZAN JAIETAN INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA

PLANTE AL MACHISMO

PROTOCOLO PARA HACER FRENTE A LA VIOLENCIA MACHISTA EN FIESTAS DE ESKORIATZA

## SUMARIO

1. ¿QUÉ ES LA VIOLENCIA MACHISTA? 2
1.1 AGRESIONES MACHISTAS 2
1.2 AGRESIONES SEXUALES 3
2. PROCEDIMIENTO DE RESPUESTA ANTE UNA AGRESIÓN MACHISTA 4
2.1 PRIMERA ATENCIÓN A LA VÍCTIMA 4
3. RESPUESTA PÚBLICA 9
3.1 CARACTERÍSTICAS DE LA RESPUESTA PÚBLICA EN EL CONTEXTO DE LAS FIESTAS 9
4. RELACIÓN DE RECURSOS 11
SATEVI Servicio de información y atención a mujeres víctimas de violencia doméstica o por razón de sexo 11

# 1. ¿QUÉ ES LA VIOLENCIA MACHISTA?

Los modos de entender la violencia machista pueden manifestarse de diferentes maneras en nuestro día a día, entre amigos, con familiares, en el trabajo, en el ocio... Este tipo de violencia genera **relaciones de poder** entre mujeres y hombres, imponiendo a las mujeres una desigualdad estructural. Las situaciones, agresiones y actitudes machistas son percibidas mayoritariamente por las mujeres, pero también por quienes no encajan en el sistema sexo-género. Es decir, se dirige también contra todas aquellas personas que no entran dentro de las normas sociales establecidas en el sistema binario.

El término violencia machista incluye otros términos como violencia **sexista** (violencia que sufre la mujer por ser mujer), **homofobia, lesbofobia y transfobia**. Estas últimas las sufre el colectivo LGTBIQ+.

## 1.1 AGRESIONES MACHISTAS

Este tipo de violencias machistas las entendemos como conductas que atentan contra la dignidad y la libertad de la víctima.



### 1.2 AGRESIONES SEXUALES

Es cualquier acto sin consentimiento que atente contra la libertad sexual de otra persona. En este contexto se considerarán agresiones sexuales las acciones que realiza el agresor **utilizando su poder** o aprovechando la **situación de vulnerabilidad** de la víctima.

> Sólo se entenderá que existe consentimiento cuando la persona así lo haya manifestado libremente mediante actos que expresen su voluntad inequívocamente

También se considera agresión sexual lo que se conoce como "dependencia química". Asimismo, tendrá la consideración de agresión sexual la realización de prácticas sexuales no consentidas aprovechándose de la anulación de la voluntad debido al consumo voluntario de sustancias, alcohol o psicofármacos.

> SÍNTOMAS: dificultad para hablar, somnolencia, náuseas o vómitos, confusión mental, mareos o vómitos o desinhibición

Aunque pienses que la víctima "se ha pasado" con el alcohol o drogas, y no le des importancia, ten en cuenta que su estado físico y emocional puede empeorar. ¡Estate alerta!



## 2. PROCEDIMIENTO DE RESPUESTA ANTE UNA AGRESIÓN MACHISTA

Las personas que acepten este protocolo ante una agresión machista, se comprometen a seguir, en Eskoriatza, el siguiente procedimiento:




### 2.1 PRIMERA ATENCIÓN A LA VÍCTIMA

Si observamos alguna agresión o vienen a pedir ayuda, dejaremos lo que estamos haciendo en ese momento para ayudar a esa persona.

### ANTES DE OFRECERLE AYUDA A UNA VÍCTIMA, ¡RECUERDA!

| ✓ | ✗ |
|---|---|
| **¡Mostrar empatía con la víctima, ella no tiene culpa!** | Ni juzgar, ni quitar importancia a lo ocurrido, ni cuestionar a la víctima, ni preguntarle ¿estás seguro?, ¿tal vez estás exagerado, no? |
| **Ser paciente y respetar su ritmo para contar lo vivido** | Con el agresor: no defenderlo o justificarlo Tal vez, conoces al agresor y no le ves capaz de cometer este tipo de agresiones. Ten en cuenta que aunque sea tu amigo puede ser un agresor |
| **Buscar a alguien de su confianza para que le ayude, si ella así lo quiere** | Con la víctima: no presionar con frases como ¡tienes que denunciar! ¿quién ha sido? |
| **Pregunta siempre antes de dar otro paso para ver si la víctima está de acuerdo** | Con la víctima: ¡no la dejes sola ni tomes decisiones sin llegar a un acuerdo con ella! |

| | |
|---|---|
| **1. No seas testigo pasivo** | ✓ Siempre que sea posible, **la prioridad** será ayudar a la víctima, poniendo en el centro su bienestar emocional y físico.<br>✓ Priorizaremos que la víctima quede en un **lugar seguro**, si no lo hubiera intentaremos ir a un lugar más tranquilo.<br>✓ Protegeremos la **intimidad** e identidad de la víctima desde el primer momento. |
| **2. Escucharla y darle apoyo** | ✓ **No dejar sola a la víctima** si ella no lo pide. Si quiere estar sola, pregunta si quiere que le llames a alguien de su **confianza**.<br>✓ Pregunta qué necesita y respeta su **decisión**.<br>✓ Debemos estar preparados para escuchar a la víctima, respetando el tiempo que necesita para contar lo que ha vivido.<br>✓ No pondremos **en duda** su relato, la escucharemos con tranquilidad y dejaremos un tiempo para las explicaciones oportunas.<br>✓ Para tomar decisiones **respetaremos su** opinión y **ritmo**.<br>✓ Si la víctima necesita tiempo para relatar más tranquilamente la agresión o para ordenar la información en su cabeza, le daremos la oportunidad de hablar en otro momento o de **volver al día siguiente**, para poder pensar con más tranquilidad como le podemos ayudar.<br>✓ Si a la víctima le cuesta tomar decisiones, podemos ofrecer/pedir ayuda a una **persona de su confianza**, poniendo siempre en el centro el bienestar de la persona agredida. |
| **3. Ante las agresiones sexuales** | **SI DESEA TU AYUDA**<br>✓ No dejarla sola. Contactar con una persona de su confianza para ayudar a la víctima. Mejor si es una mujer.<br>✓ Preguntarle si desea **ayuda médica**, atención **psicológica** o quiere interponer una **denuncia**.<br>✓ **Infórmale** que tiene derecho a solicitar asistencia médica o social y/o a interponer denuncia. |

| | |
|---|---|
| **agresiones sexuales** | ✓ Si desea **acudir al hospital,** desde el hospital se puede llamar al juzgado para que acuda el médico forense y que recoja muestras biológicas de la víctima.<br>✓ Llamar al juzgado implica **dar parte**, y se le debe comunicar que eso implica iniciar un proceso judicial.<br>✓ Deberá tener en cuenta que deberá iniciar un **proceso judicial**, por lo que deberá declarar y, al día siguiente, asistir a un juicio rápido.<br>✓ La Ley reconoce a la víctima el derecho a que se le recojan muestras biológicas y a su conservación en el hospital, con independencia de que desee interponer una denuncia o no.<br>✓ La víctima puede borrar pruebas si se lava la boca, se ducha, come, cambia de ropa o la tira. Además, si tiene vídeos, audios, imágenes o mensajes Whatsap que pueden considerarse pruebas, mejor si no los elimina, porque pueden servir para poner la denuncia.<br>✓ Si se ha limpiado o cambiado de ropa, **¡no le culpes!**<br>✓ En el último apartado de este documento se encuentran los **teléfonos de los recursos** que puedes compartir con la víctima.<br>✓ Si tienes que ausentarte, asegúrate de que no dejas sola a la víctima y de que **no corre peligro**.<br><br>**SI NO QUIERE TU AYUDA**<br><br>✓ Intentar localizar a **alguien cercano** para que la víctima no se quede sola. Mejor si es una mujer.<br>✓ En cualquier caso, antes de acudir a alguien, **contrástalo** siempre con la víctima.<br>✓ Si ella quiere, da información de los recursos a su entorno o a quien se haya acercado.<br>✓ Cuando te ausentes, asegúrate de dejarla **siempre acompañada**. |

| | |
|---|---|
| | **SI NO ESTÁ EN CONDICIONES DE TOMAR DECISIONES**<br><br>✓ **No dejarla sola.** Si es posible mejor si le avisas a una mujer.<br>✓ **Llamar al 112.**<br>✓ Mientras esperéis, busca un **lugar tranquilo**. |
| **4.Informar** | ✓ **Asegúrate** de que la víctima recibe la información necesaria.<br>✓ No juzgues la decisión de la víctima de denunciar o no denunciar.<br>✓ Si la víctima está de acuerdo, activaremos la **respuesta pública**.<br>✓ Si el agresor se encuentra en el mismo espacio y la víctima así lo necesita/quiere, informaremos de la agresión a los **responsables** del lugar. |
| **5. Con el agresor** | ✓ Si la agresión se produce en un bar y la víctima ha sido trasladada a un lugar seguro, **siempre con su consentimiento**, el responsable del bar encenderá la **ALARMA** y apagará la música para avisar a los participantes de que se ha producido una agresión.<br>✓ Si la víctima lo quiere, y el agresor está en el mismo espacio, le pediremos **que se marche**.<br>✓ **No tendremos complicidades** con el agresor o con quienes le apoyen, ni para aliviar la tensión. |

## 3. RESPUESTA PÚBLICA

En la lucha contra la violencia machista, quienes aprueban este documento se comprometen a responder públicamente a las agresiones en Eskoriatza. Para crear una cultura de rechazo radical a la violencia machista es necesario dar una respuesta pública contra las agresiones. Por ello, si se produce una agresión machista en fiestas de Eskoriatza, y la víctima lo desea, se puede activar la respuesta pública. Esta respuesta se activará en los siguientes casos:

1. Si la víctima lo desea
2. Si la víctima no es capaz de responder, lo decidirán sus familiares o personas de su confianza, poniendo siempre en el centro el bienestar emocional de la víctima.

### 3.1 CARACTERÍSTICAS DE LA RESPUESTA PÚBLICA EN EL CONTEXTO DE LAS FIESTAS

En el contexto de las fiestas surge la necesidad de responder rápidamente a una agresión. A veces esto no coincide con el tiempo que necesita la víctima. Por lo tanto, se puede activar una respuesta pública sin contrastar con la víctima, sin tener en cuenta su opinión, y perjudicar a la propia víctima. Para que eso no ocurra, para dar una respuesta pública será necesario respetar el ritmo de la víctima.

| |
|---|
| Debemos contar con el consentimiento de la víctima para activar la respuesta pública<br>La respuesta pública nunca puede perjudicar a la víctima y debe tener una medida de reparación |

En este documento se recogen diferentes formas de activar la respuesta pública, que podrán servir de referencia a los agentes sociales.

Para adecuar la respuesta se valorará el **impacto** de la agresión en el municipio. Del mismo modo, la activación de la respuesta dependerá de las necesidades de la víctima y/o de las personas de su entorno. Por tanto, esta respuesta, además de servir como medida de apoyo a las víctimas y de rechazo a la violencia machista, servirá para **sensibilizar** a la ciudadanía y **prevenir** futuras agresiones.

Acciones que se pueden plantear para activar la respuesta:

- Declaración de rechazo a la agresión
- Suspender actividades/conciertos durante un tiempo determinado al día siguiente
- Suspender conciertos y repudiar la agresión desde el escenario
- Suspender actividades en txoznas, bares u otros lugares
- Realizar acciones en diferentes espacios festivos para condenar la agresión
- Convocar una concentración en la plaza
- Suspensión de actividades/fiestas
- Repartir folletos y pegatinas y colocar carteles sobre recursos en diferentes zonas (txoznas, bares, portadas, plazas)
- Difundir lemas relacionados con la igualdad

Si la agresión, por sus peculiaridades (agresiones masivas, violaciones, asesinatos, agresiones muy violentas, etc.) ha tenido un impacto fuerte en el municipio, se podrán adoptar otras medidas a medio y largo plazo, con derivación a recursos públicos y municipales.

Las acciones que se pueden poner en marcha en ese contexto son las siguientes:

- ✓ Sesiones terapéuticas para familiares o personas allegadas de la víctima
- ✓ Sesiones con agentes de educación formal y no formal (profesorado, dinamizadores/as juveniles, educadores/as) para trabajar con menores las consecuencias de la agresión
- ✓ Actos de apoyo a la víctima
- ✓ Pintar murales con los ciudadanos

## 4. RELACIÓN DE RECURSOS

Compartiremos esta lista con la víctima o personas de su confianza.

### SATEVI Servicio de información y atención a mujeres víctimas de violencia doméstica o por razón de sexo

- Teléfono 900 840 111
- Servicio 24 horas 365 días

¿Qué ofrece el servicio?

- Te escucharán y te contestarán sin preguntarte quién eres
- La llamada es gratuita y no aparecerá en la factura, si en el móvil
- Pueden ayudar a personas que no pueden escuchar o hablar
- Pueden hablar en 51 idiomas
- Atienden a mujeres víctimas de cualquier tipo de violencia, así como a personas de su entorno, familiares y profesionales

**SAV -SAV Servicio de Asistencia a la Víctima**

Teléfono 900100928

- Horario: de lunes a viernes de 8:30 a 15:00, y martes y miércoles, de 16:30 a 19:00
- Julio y agosto: de 8:00 a 15:00 horas

¿Qué ofrece el servicio?

El Servicio de Asistencia a la Víctima está formado por equipos multidisciplinares de juristas, trabajadores sociales y psicólogos. Ofrecen asesoramiento integral a las víctimas.

**Urgencias 112**

**Policía Local 943 71 45 32**

**Ertzaintza Arrasate 943 53 47 20**

**Servicios Sociales de Base de Eskoriatza 943 71 31 36**

- **Guerreras, grupo de mujeres supervivientes: guerreras.altodeba@hotmail.com**